

Eolikoez harago



MIKEL GOMEZ
MILITANTE EKOLOGISTA

Energiari buruz ematen ari den eztabaidaren harira, ohar hiperlaburbildu batzuk:

1. Energia ez da soilik merkantzia bat, aurrebaldintza ekonomiko bat ere bada.
2. Petrolioa ordezkazina da eta izango da, ez dezagun gure burua engaina.
3. Gure eredu energetikoa erregai fosilen menpekota da, eta honen kalteak externalizatzen ditugu.
4. EAE EBko CO2 isurketen batzbestekoaren ginetik dago.
5. Europan Luxemburgok bakarrik ekoizten du EAEk baino energia gutxiago.
6. Mundu mailako giro politiko ezegonkorra ekonomia berlokalizatzeko beste arrazoi bat da (energia barne).
7. Energiaraz hitz egiterakoan, faltan botatzen ditut Petronor (EAEko CO2 isurien %12) edo Superportua (BPGaren %1.5) handitzeko asmoen aurkako aipamenak, Munstroa gau eta egun elikatzen duten azpiegiturak.
8. Ze etorkizun dira posible eskuragarri ditugun oinarri materialak kontuan hartuta? Ez da inolako kontraesanik gabeko trantsizio energetiko lineal eta jarraia emango. Zoritxarrez, berandu gabilta.
9. Noski kontsumo energetikoa murrizteko bideorri bat behar dugula, datu zehatzekin. Plan hori nola ezartzeaz,

Egungo mendizaletasuna metafora ona da; ez dugu inolaz ere eolikorik nahi mendietan, baina ehunka edo milaka kilometro egiten ditugu mendira joateko

- botereaz ere, eztabaidatu beharko genuke. Kontua dezente korapilatzen da.
10. Astigarragan Gabonetako argiak izango dituzte, herri kontsultan hala erabakita.
 11. "Lurraren defentsa" eta "Desazkundera justua" jendea erakartzeko leloak dira, ez programa politikoak.
 12. "Dorre eolikorik ez, plaka fotoboltaikoak bai", eta gure mendietan eguzki plaken osagai diren mineralak baleude... zer esango genuke?

13. Errekaleorreko plaka batek edo Iberdrolaren beste batek txikizio bera eragiten du.

14. Egungo mendizaletasuna metafora ona da; ez dugu inolaz ere eolikorik nahi mendietan, baina ehunka edo milaka kilometro egiten ditugu mendira joateko.

15. Ekologismoan historikoki ikuspegi kontserbazionista gailendu zaio begirada sozialari, baina parke eolikoekin ekonomia deskarbonizatu eta faktura merketzea lortuko bagenu?

16. Maitasun guztiarekin, pentsatu duzue inoiz nondik datorren Goienerrek merkaturatzen duen energia?

17. Dorre eolikoek ikusgarritasunak gure identitate politiko ekologistetan deserosoegi sentiarazten gaitu. Horrek eztabaidaren gainontzeko ertz guztiak biziatu egiten ditu.

18. Alde/kontra eskemek eztabaida gehiegi sinplifikatzen dute.

19. Statkraft ez da GKE bat, baina ez da Repsol ere. Eta haien proposamena itxaron beharrean herri antolatuak egingo balu berea? Arriskuak daude, aukerak ere bai.

20. Sanoa da ekologismoa bloke monolitiko bat ez izatea. Gure desadostasunak modu egokian kudeatzea izango da mugimendu zabal bat eraikitzeko arrakastaren gakoetako bat. ●

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra




Bilbao